



Aniztasuneko II Foru Plana  
Eskubide Berdintasuna

# Aniztasunetik eraikiz 3

Giza Eskubideetako eta Kultura  
Demokratikoko Zuzendaritza

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA  
ORAIN  
Es futuro



1948. urtean Nazio Batuen Erakundeak Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala aldarrikatu zuen. Adierazpen horrek pertsona guztien berdintasuna gorai patzen du. Gure mundu modernoan hainbat hobekuntza izan dira pertsona guztien berdintasunaren alde, esparru ugarian: legerian, gizartean eta ekonomian. Hala ere, badira, gure lurraldean ere, pertsonen duintasunaren kontrako jarrerak. Horrela gertatzen da pertsona hainbat arrazoiengatik diskriminatzen dugunean: jatorria, etnia, kultura, erlijioa, genero identitatea edo sexu orientazioa, ideologia, hizkuntza edo gaitasunak, adibidez.

Nola eraiki orduan giza eskubideetan oinarritutako eta kohesio soziala helburu duen Gipuzkoa berdinasua eta bazterkeriarik gabekoa?

Gipuzkoako Foru Aldundiak berdintasuna bultzatzeko apustu sendoa egin du lurraldean eta uste du diskriminazio eza izan behar dela gizartea kohesionatzeko eta bizikidetzaren bultzatzeko giltzarria eta funtsezko euskarria. Aniztasunaren kudeaketa positiboa egin nahi du: hau da, aniztasuna balioan jarri eta bermatu aniztasun horrek ez duela diskriminazioa eragiten.

Ikastetxeetan ere aniztasun hori bermatzeko lana etengabea da eta hori indartzeko asmoz, osagarria izan daitekeen “Aniztasunetik Eraikiz” proposamena sortu du. “Aniztasunetik Eraikiz” proposamena hiru ikasturteko proposamena da. DBH2n hasiko dira ikasleak gaia lantzen eta DBH4n amaituko dute. Hiru ikasturte horietan, giza eskubideak oinarritzat hartuta, inguruko aniztasunera gerturatuko dira, bertan ematen diren diskriminazio egoerak identifikatuko dituzte eta horien aurrean begiak itxi beharrean, eraldaketarako proposamenak landuko dituzte.

### **Orain arte egindakoa eta aurrean egongo dena.**

Lehenengo urtean diskriminazio egoerak jasaten dituzten pertsonak ezagutu genituen eta gure ikastetxean, auzoan edo herrian ditugun diskriminazio egoerei begira jarri ginen. Ikusitakoa eta ikasitakoa beste batzuei ere kontatu genien, beraiek ere diskriminazio egoera horien berri izan eta aniztasuna balioan jarri dezaten.

Bigarren ikasturtean Gipuzkoako elkarte batzuk giza eskubideen inguruan egiten duten lana gertutik ezagutu genuen eta beraiekin elkarlanean aritzeko gonbitea egin ziguten; horrela, beraiekin batera, giza eskubideen aldeko konpromisoa gauzatu zuten ikasleek herrian. Hitzetatik ekintzara pasa ziren giza eskubideen aldeko aktibista bihurtuz, gizarte justuago bat lortzea guztion zeregina delako.

Hirugarren ikasturte honetan, komunikabideen bidez, sare sozialetan edo lagunartean izaten ditugun solasaldietan jasotzen ditugun mezuak aztertuko ditugu. Horietako mezu batzuk diskriminatzaileak dira eta gorrotoa sortzera ere iritsi daitezke. Askotan, ez diegu garrantzi askorik ematen, edo ez dirudite iraingarriak izan daitezkeenik, baina gure gizartean instalatzen dira, pisua hartzen joaten dira eta egia direla sinesten amaitzen dugu. Zurrumurruek bezala hedatzen dira; maiz, guk ere laguntzen dugu hedatzen eta horren ondorioez ez gara jabetzen. Mezu horiek identifikatzen ikasiko dugu, kontzientzia hartzen eta horiei aurre egiten. Azkenengo urtea denez, aurreko urteetan ezagutu ditugun diskriminazio egoerei eta aurrean landuko ditugun gorroto-diskurtsoei erantzuteko kanpaina batekin amaituko dugu prozesua. Ikasleak izango dira gorroto-diskurtsoei aurre egiteko bestelako mezuak sortuko dituztenak eta herritarrei helaraziko dizkietenak.

**GIZA ESKUBIDEAK ETA KULTURA DEMOKRATIKOA . Aniztasunetik eraikiz.**

[www.gipuzkoa.eus/eu/web/gizaeskubideak](http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/gizaeskubideak)



# Aniztasunetik eraikiz

---

06. Orr.  
**Proposamenaren  
aurkezpena**

08. Orr.  
**Kronograma**




11. Orr.  
**Aztertu**



24. Orr.  
**Sentitu**



30. Orr.  
**Konprometitu**



38. Orr.  
**Eranskinak**



## Hiru ikasturteko proposamenaren aurkezpena

Ikasturte bakoitzean lan-ildo batean jarriko da fokua (aniztasuna, giza eskubideak eta gorroto-mezuak) eta gaitasun bat landuko da nagusiki (enpatia, parte-hartzea eta sormena). Lanerako metodologia aldetik hiru atal bereiziko dira (aztertu, sentitu eta konprometitu).

### Helburu orokorra

Ikasleek beren inguruan bizi duten aniztasuna ezagutu eta balioan jarri dezatela, guztiontzat giza eskubideak aldarrikatzeko pausoak emanez gertuko eragileekin elkarlanean.

LAN-ILDOAK ETA IKASTURTEA	ATALAK	HELBURUAK	METODOLOGIA
LEHEN IKASTURTEA (DBH2) ANIZTASUNA ETA ENPATIA	Aztertu	Aniztasunaren esanahia ulertzea.	Dinamikak, bideoak, solasaldiak...
	Sentitu	Diskriminazio egoerak bizi dituzten pertsonen sentipenak ezagutzea eta barneratzea.	Testigantzak eramatea gelara beren bizipenak kontatzera.
	Konprometitu	Herriko aniztasunaz jabetzea eta balioan jartzea.	Ikastetxeko eta herriko aniztasuna islatzen duten edukiak sortzea eta zabaltzea.
BIGARREN IKASTURTEA (DBH3) GIZA ESKUBIDEAK ETA PARTE-HARTZEA	Aztertu	Giza eskubideen inguruko hausnarketa sustatzea.	Dinamikak, bideoak, solasaldiak...
	Sentitu	Giza eskubideen alde lana egitearen beharraz jabetu eta nola egin daitekeen ezagutzea.	Elkarteak eramatea gelara giza eskubideen ikuspegitik beren lanaz eta motibazioez hitz egiteko.
	Konprometitu	Giza eskubideen alde lan egitearen esperientzia bizitzea.	Sentsibilizazio ekintzaren bat garatzea herrian elkarteren batekin elkarlanean.
HIRUGARREN IKASTURTEA (DBH4) GORROTO MEZUAK ETA SORMENA	Aztertu	Diskriminazioa eta gorrotoa sortzen duten mezuen aurrean jarrera kritikoa lantzea.	Komunikabideetan, sare sozialetan... gorrotoa sortzen duten mezuek identifikatzea eta azterzea.
	Sentitu	Giza eskubideen alde lan egiteagatik hainbat pertsonak jasaten dituzten egoerak ezagutzea.	Giza eskubideen alde lan egiteagatik ondorio kaltegarriak jasan dituen pertsonaren bat gelara eramatea.
	Konprometitu	Aniztasunaren eta giza eskubideen aldeko mezu positiboak sortu eta komunikatzea.	Aldundiak edo udalek bultzatu dezaketen kanpaina baterako edukiak, jarduerak... sortzea eta kanpaina parte hartzea.



## Hirugarren ikasturtea

**Urria** 

### Aurkezpena

Aurkezpen saioa ikastetxeetako ordezkariekin.

**Azaroa - Abendua** 

### Aztertu


**1.1**  
Piztu termometroa!

**1.2**  
Albiste faltsuak.

**1.3**  
Sare sozialak aztergai.

**1.4**  
Marrazki saltsa.

**1.5**  
Mezu bat jaso dut.

**Urtarrila - Otsaila** 

### Sentitu

**2.1**  
Gorroto-diskurtsoak.

**2.2**  
Testigantza tailerra.

**Martxoa - Maiatza** 

### Konprometitu

**3.1**  
Iragarkiak sortzeko tailerra.

**3.2**  
Kanpaina diseinatu eta iragarkiak sortu.

**3.3**  
Iragarkiak ikusteko jardunaldia.

**3.4**  
Kanpaina gauzatu.

**Ekaina** 

### Ebaluazioa

**4.1**  
Ebaluazioa eta ospakizuna.

\*

Saio guztiak ikastetxe bakoitzeko irakasleek garatuko dituzte, baina prozesu osoan zehar proposamena bideratzen lagunduko duen erreferentziazko dinamizatzailearen laguntza izango dute.

Erreferentziazko dinamizatzailea arduratuko da ikastetxera joango diren pertsonekin bitartekaritza lana egiteaz eta bertara eramateaz.

Ikastetxe bakoitzaren erritmoa eta denborak desberdinak direnez, programa malgutasunez garatzeko aukera emango zaio ikastetxeari, baina sentitu eta konprometitu ataletan planteatzen diren tailerrek eta jardunaldiek dituzten datak errespetatu beharko dira, ikastetxe guztietan aldi beretsuan egingo baitira.



# 1 Aztertu

Urtean zehar egingo den lanketaren eta zentzuaren inguruko sarrera egingo du irakasleak. Urte hauetan aniztasuna eta eskubideak landu ditugu eta horien aurkako diskurtsoak ere badirela ikusi dugu. Pentsamolde horiek gugana iristen dira bide desberdinetatik eta gugan eragiten dute, askotan horretaz konturatzen ez bagara ere.

Beraz, lehendabizi, mezu horiek identifikatzeko gai izan behar gara eta gugan nola eragiten duten ulertu. Ondo informatuak egotea eta iritzi propioa izatea oso garrantzitsua da, horrela bakarrik izango garelako gai diskriminazioa eta gorrotoa sortzen duten diskurtsoei aurre egiteko.



# 1.1 Piztu termometroa!

## Helburua:

Jasotzen ditugun mezuak aztertzea eta iritzi propioa sortzeko hausnarketa bideratzea.

## Iraupena:

55 minutu

### 00:00 Sarrera

Saioa hasi haurretik 1,2,3,4 zenbakiak jarriko ditugu orri banatan. Ondoren lau orriak hartu eta, gelako lau iskinetan jarriko ditugu, beraien artean ahalik eta tarte gehien utziz. Dinamika hasteko, ikasleak zutik jarriko dira gelaren erdian eta irakasleak dinamikaren funtzionamendua azalduko die.

### 00:10 Termometroaren dinamika

Dena prest dugunean, isiltasuna egingo dugu eta irakaslea **1. eranskinean** dauden esaldiak irakurtzen hasiko da, banan-banan eta ikasle bakoitza, esaldia entzun ondoren, esaldiarekin duen adostasunaren arabera zenbaki baten ondoan jarriko da. Zenbakien esanahia honakoa da: 1 erabat desados, 2 nahiko desados, 3 nahiko ados, 4 erabat ados.

Esaldi bakoitzaren ondoren ikasleek posizioa hartu dutenean, solasaldia sustatuko dugu eta zenbaki bakoitzean dagoen ikasle bati edo biri zenbaki horretan zergatik jarri diren komentatzeko eskatuko die irakasleak. Ikasleek beren posizioa argudiatzea bilatuko da. Zenbaki desberdinetan jarri diren ikasleen arteko solasaldia ere sustatuko dugu.

Esaldi bakoitzaren inguruko solasaldiak gehiagorako ematen ez duenean, irakasleak galdetuko du ea norbaitek solasaldiaren ondoren iritzia aldatu duen eta, horrela bada, zenbakiz aldatu daitekeela esango diogu ikasle horri.

Horrela egingo da esaldi bakoitzarekin. Irakasleak erabakiko du zenbat esaldi landu eta noiz amaitu. Ez da derrigorrezkoa esaldi guztiak lantzea, baina komenigarria da lantzen diren esaldiek gai desberdinak mahai gainean jartzea eta gizatalde desberdinei erreferentzia egitea. Esaldi horien orde, irakasleak, egokiak ikusten dituen beste esaldi batzuk ere proposa ditzake.

Amaitzeko, ikasleei galdetuko diegu ea beraiek ere esaldiren bat proposatu nahi duten beste ikasleek iritzia eman dezaten.

### 00:30 Solasaldia

Termometroaren dinamika amaitutakoan, borobilean jarriko gara eta sortu diren eztabaidetan sakontzen jarraituko dugu. Galdera hauek lagungarriak izan daitezke:

- Horrelako esaldiak edo antzekoak entzunak genituen? Non entzun izan ditugu? Nori?
- Esaldi hauek, antzekotasunik badute beraien artean?
- Errealitatea islatzen dute? Egia dira ala gezurra dira? Nola jakin dezakegu hori?
- Horrelakoen aurrean badugu iritzi propiorik? Nola sortzen dugu gure iritzia? Horrelako esaldiak zalantzan jartzeko ohitura badugu edo besterik gabe sinesten ditugu?
- Zer dira zurrumurruek? Zergatik sinesten ditugu?
- Zer gertatzen da horrelako esaldiak zabaltzen direnean?

### 00:45 Ez utzi endredatzen

ZE HAR errefuxiatuekin elkarrekin egindako **No te dejes enredar** bideoa ikusiz amaituko dugu saioa. Aurreko ariketan landutako esaldiak eta bideoan zurrumurruei buruz diotena parekatuko ditugu.

### Ariketa gehigarria:

Saioaren garapenean esaldi batzuk beste batzuk baino eztabaida, desadostasun edo zalantza gehiago sortuko dute. Ariketa hau lagungarria izan daiteke irakaslearentzako, ikasleen artean mezu hauek nora eragiten duten jakiteko eta ikasle batzuekin zer landu beharko litzatekeen ikusteko. Interesgarria izan daiteke esaldi horietan gehiago sakontzea eta horien inguruko informazio gehiago lortzea Interneten, ikasleek euren iritzi propioa osatzen joan daitezten. Ariketa hau ikasle guztiei proposatu diezaiekegu edo ikasle zehatz batzuei, ikasleen interesaren arabera edo irakasleak behar bat detektatu duelako.

## 1.2 Albiste faltsuak

### Helburua:

Albiste faltsuen inguruko hausnarketa sustatzea eta albiste faltsu horiek identifikatzeko gai izatea.

### Iraupena:

55 minutu

### 00:00 Sarrera

Albiste faltsuak edo “fake news” terminoa askotan entzuten dugu. Fenomeno hori ezagutzen saiatuko gara. Albiste faltsuek, aurreko ariketan landutako esaldiak eta zurrumurruak bezala, talde zaugarriak dituzte jomugan eta egia ez den zerbait sinestarazten digute sarri, horretarako bide desberdinak erabiliz.

Saioa garatzeko orduan, **2A eranskinean** agertzen diren irizpideak lagungarri izango ditu irakasleak.



### 00:05 Zer dira albiste faltsuak

Saioa hasteko, albiste faltsuei buruz edo “fake news” terminoari buruz zer dakiten galdetuko diegu ikasleei. Galdera hauek talde osoarentzat luzatu ditzakegu edo ikasleak 4-5 taldetan banatu eta taldekako lana egin dezakete. Taldeka eginez gero, ariketa osoa egiteko bi saio beharko genituzke agian.

- Zer dira albiste faltsuak (fake news)?
- Zein ezaugarri dituzte?
- Nork sortzen ditu? Zertarako?
- Nola zabaltzen dira?
- Arriskutsuak dira? Edo ez dute kalterik sortzen?
- Eraginik badute gugan? Zer erreakzio sortzen dizkigute?
- Ze antzekotasun dute aurreko ariketako esaldiekin?

### 00:20 Albiste faltsuak identifikatzeko irizpideak

Askotan zaila da jasotzen dugun hori egia edo gezurra den jakitea, baina horretan lagungarri izango ditugun irizpide batzuk kontuan izatea komeni da. Ikasleei ondorengo galderak luzatuko dizkiegu solasaldia pizteko:

- Nola jakin dezakegu jaso edo irakurri dugun albiste bat egia edo gezurra den?
- Eta nola jakin albiste horrekin datorren argazkia benetakoa dela, ez dela adibidez beste leku edo garai batekoa?
- Edo nola jakin pasa diguten audio bat ez dagoela manipulatua?

Ikasleen erantzunak **2A eranskineko** informazioarekin osatuko ditugu.





## 00:30 Bideoa ikusi eta komentatu

Ander Artetxeren [albiste faltsuak](#) bideoan, gaiaren laburpen bat egiten da. Ikasleekin ikusiko dugu eta gaia borobiltzeko erabiliko dugu.

## 00:40 Egia edo gezurra?

Lehen aipatu bezala, egia manipulatzeko bide desberdinak daude. Hemen adibide batzuk ikusiko ditugu. Irakasleak **2B eranskinean** dauden titularrak pantailan jarri eta banan-banan irakurriko ditu, ikasleei galdetuz berri hori egia edo gezurra den. Ondoren, beheko esteka hauetan dauden azalpenez baliatuz erantzuna osatuko du.



## Hauek dira berriak

- Indignación en Bilbao por la muerte de un hombre de 40 años tras ser atracado y brutalmente golpeado por dos magrebíes.  
**Erantzuna:** Gezurra da. Ez ziren bi magrebiar izan. Hemen dago [Azalpena](#).
- Un inmigrante que vende pañuelos se encuentra una cartera con 16.150 euros... y la entrega a la Policía.  
**Erantzuna:** Egia da.
- Mandan a un 'euskalburro' a la Luna.  
**Erantzuna:** Gezurra da. Kanpaina baterako asmatu zen, baina agentzia batek kontrastatu gabe egia hartu eta zabaldu zuen. Hainbat komunikabidetan publikatu zen. Hemen dago [Azalpena](#).

## Irudiak eta bideoak

- Obamak atea ostikada batez ireki du. Ez da egia. Muntaia da.
- Argazki faltsuak. Manipulatuak izan diren argazki batzuk jasotzen ditu bideoak.

## 1.3 Sare sozialak aztergai

### Helburua:

Sare sozialetan zurrumurrak eta albiste faltsuak identifikatzeko gai izatea.

### Iraupena:

55 minutu

### 00:00 Sarrera

Ikasleei zein sare sozial erabiltzen dituzten galdetuko diegu (TikTok, Facebook, Instagram, Whatsapp, Youtube, Twitter...). Ondoren, 4-5 kideko taldeak egingo ditugu, gehien erabiltzen duten sarea soziala kontuan izanik. Talde bakoitzak sare sozial bat edo bi aztertu ditzake.

### 00:10 Sare sozialak aztertu taldeka

Sare horietan jaso dituzten edo ikusten dituzten eta zurrumuru eta albiste faltsuak izan daitezkeen adibideak bilatuko dituzte, horretarako telefonoak eta ordenagailuak erabiliz. Beraien perfilean ikusitakoak edo sarean aurkitutakoak izatea komeni da. Bilaketa hau egiteko denbora gehiago ematea beharrezkoa ikusten badugu, bilaketa, eskola ordutik kanpo egitea eska dezakegu edo ariketa bi saiotan egin.

### 00:30 Elkarri adieraztea

Talde bakoitzak aurkitutako adibideren bat edo beste erakutsiko die beste taldeei. Galdetuko diegu aurreko ariketan landutako irizpideak kontuan izanda horiek sinesgarriak diren edo ez.

### 00:40 Bideoa ikusi eta solasaldia

Hamaika telebistako [Sare sozialak ultraeskuinaren komunikazio giltzarri](#) ikusiko dugu laburpen modura. Ondoren, ikasleekin solasaldia sortuko dugu eta sare sozialek gugan duten eragina landuko dugu.

### 00:50 Buloak identifikatzeko tresna batzuk

Ondorengo web orriak edo antzeko batzuk erabili ditzakegu egunkarietako berri bat edo sare sozialetan jasotako mezuren bat faltsua den jakiteko edo irudi bat manipulatu den edo oker erabilia den begiratzeko. Denbora badugu, orri hauetan sartu gaitezke eta ikasleekin batera probatu ditzakegu:

- Berri faltsuak identifikatzeko: [www.maldita.es](http://www.maldita.es)
- Irudiak kontrastatzeko: [www.tineye.com](http://www.tineye.com)



## 1.4 Marrazki saltsa

### Helburua:

Presio egoerek gure jokabidean duten eraginaren kontzientzia hartzea.

### Iraupena:

55 minutu

### 00:00 Sarrera

Dinamikaren azalpena egingo du irakasleak. Ikasleei esango die informazioaren transmisioa lantzea izango dela dinamikaren helburua, hau da, ez die esango benetako helburua presio egoeratan nola jokatzeko dugun aztertzea dela.

### 00:10 Marrazkien dinamika

**3. eranskinean** dauden irudiak erabiliko ditugu dinamika egiteko. Bat originala da eta bestea moldatua dago. Marrazkiak oso antzekoak dira, koloreak dira aldatu diren gauza bakarra. Saiola hasi aurretik irakasleak bi marrazkiak inprimatuko ditu, koloretan, baina kontu handia izan beharko du ikasleak bi marrazki desberdin direla konturatu ez daitezen.

Bost boluntario eskatuko ditu irakasleak eta esango die horietako lau ikasleek marrazki bat ikusiko dutela, eta detaile guztiak memorizatu beharko dituztela: elementuak, formak, koloreak, kokapena, distantziak... Ondoren, bosgarren boluntarioari bakoitzak gogoratzen duena kontatu beharko dio eta honek marrazkia egin beharko du. Beraz azkenengo boluntario horrek ondo marrazten duen norbait izan beharko du. Posible ikusten dute azkenengo ikasleak marrazkia ondo egitea?

Ikasle boluntario guztiak gelatik kanpora joan ondoren, gelan gelditzen diren ikasleei moldatua izan den marrazkia pantailan erakutsiko zaie minutu batez, arraunlari gorria aurreratua duena. Amaiera arte isilik egon behar dutela esango zaie. Ondoren, pantaila itzali egingo da.

Ondoren, lehenengo ikaslea sartu araziko dugu eta marrazki originala (arraunlari urdina aurreratua duena) emango diogu paperean (gelakoek ez dute ikusiko ze marrazki eman diogun) eta marrazkia aztertzeko minutu bat emango diogu.

Bigarrena sartzen den bitartean, irakasleak marrazkiak trukatuko ditu inor konturatu gabe. Bigarren ikasleari moldatutako marrazkia emango diogu (arraunlari gorria aurreratua duena), eta horrek ere minutu bat izango du marrazkia aztertzeko. Hirugarrenarekin eta laugarrenarekin ere moldatutako marrazkia erabiliko dugu. Beraz, marrazki originala ikasle batek bakarrik ikusi du, lehena sartu denak. Saiatuko gara ikasle hori nortasun handiko ikaslea izan dadin, ondoren bere postura defendatu beharko baitu beste guztien iritziaren aurka.

Bosgarrena sartzen denean, ondoen marrazten duena, aurreko lauek ikusi duten marrazkiak gogoratzen dutena kontatuko diote elementuak, formak, koloreak, kokapena, berak marrazkia egin dezan. Marrazki hori egin dezan, papelografo edo kartulina bat eta koloretako errotulagailuak beharko ditugu. Gelako beste ikasleak isilik egongo dira.

Deskribatzen hasten direnean, arraunlarien posizioak eta koloreak zalantza sortuko du. Boluntarioen arteko eztabaida apur bat luzatzen bada, gelako beste ikasleei emango diegu hitza, beraiek ere marrazkia osatzen lagundu dezaten.

Marrazki desberdina ikusi duen ikaslearen jokabidea da dinamika honekin aztertu nahi dena. Inork ez daki berak marrazki desberdina ikusi duela eta berak bere bertsioa mantentzen duen edo amore ematen duen aztertuko dugu.

### 00:30 Solasaldia

Behin marrazkia amaitutakoan, dinamikan gertatu denaz solastuko dugu ikasleekin. Galdera hauek lagungarriak izan daitezke:

- Zer gertatu da? Lortu da marrazkia egitea?
- Marrazki desberdina ikusi duen ikasleari galdetuko diogu zer gertatu zaion? Nahastu egin da? Seguru dago esaten zuenaz? Iritzia aldatu badu, zergatik egin du? Taldearen presioa sentitu du?
- Beste ikasleek nola jokatu dute?
- Zein zen dinamikaren benetako helburua? Zer ondorio ateratzen dute?
- Nor zegoen oker? Zein zen irudi originala? Egin irudi bidezko bilaketa Interneten (Tineye...) irudi originala zein den jakiteko. Originala (urdina aurreratua duena).
- Horrelako zerbait gertatu zaigu noizbait?
- Non dago norberaren bertsioa mantentzeko zailtasuna? Norbait presionatua sentitu da pentsatzen ez duen zerbait esateko edo egiteko?
- Zaila al da norberaren iritzia mantentzea? Zein kasutan egiten zaigu zaila? (lagunen artean, familian, ezezagunekin, talde handitan, txikietan...)

## 1.5 Mezu bat jaso dut

### Helburua:

Zurrumurruen edo gorrotoa sortu dezaketen diskurtsoen aurrean izan ditzakegun jokabide desberdinak aztertzea.

### Iraupena:

55 min

### 00:00 Sarrera

Role playing ariketa baten bidez kasu bat landuko dugu, baina hiru eszena desberdinetan. **4. eranskinean** daude kasua eta hiru eszenak garatzeko ikasleei eman beharreko oharrak.

Hiru laukote beharko ditugu dinamika hau aurrera eramateko. Laukoteak osatu ditugunean, laukote bakoitzean ikasle bakoitzari zenbaki bana itsatsiko diogu paparrean, batetik laura. Beste ikasleak behatzaileak izango dira. Gelan ikasle gutxi badira, hiru eszenak egingo dira baina taldeak hirukoak izango dira. 4. zenbakia ez dugu erabiliko.

Behatzaile papera egiten dutenek, eszena bakoitzean pertsonaia bakoitzak izan duen jokabideari erreparatu beharko diote eta jokabide horrek duen ondorioa zein den aztertu.

### 00:10 Eszenak antzeztu

Taldeak egingo ditugu eta ikasle bakoitzari dagokion papera emango diogu. 3-5 minutu emango dizkiegu beren rola prestatu dezaten. Ondoren, hiru eszenak antzezten hasiko dira bata bestearen ondoren. Horretarako, gelaren erdian jarri ditugun lau aulkietan eseriko dira eszena bakoitzeko ikasleak eta gelaren aurrean aurkeztuko dute kasua. Eszenak laburrak izango dira.


### 00:30 Solasaldia

Hiru eszenak ikusi ondoren kasu bakoitzean nolako jokabideak izan diren aztertuko dugu.

- Zer desberdintasun ikusi dute behatzaileek hiru eszenen artean? Nolako desberdintasunak egon dira zenbaki berdineko ikasleen artean eszenaren arabera?
- Nola sentitu da zurrumurruarekin ados ez zegoen pertsona (2 ikaslea) eszena bakoitzean? Zein izan da errazena eta zailena 2 zenbakientzat?
- Nola sentitu da zurrumurrua zabalitzen zuen pertsona (1 ikaslea) eszena bakoitzean? Zein eszena izan da eszena errazena eta zailena 1 zenbakientzat?
- Nola sentitu dira kasu bakoitzean 3 eta 4 ikasleak?
- Zein da eszena bakoitzetik ateratzen dugun ondorioa?
- Zein da eszena egokiena, zurrumurruari aurre egiteko?
- Erraza da horrelako kasuetan pentsatzen duguna defendatzea?

### 00:45 AZTERTU atalaren gakoak


SENTITU atalera pasa aurretik, AZTERTU atalean egindako ariketen ondoren zer azpimarratu nahi duten galdetuko diegu ikasleei eta orri batean apuntatuko dugu, KONPROMETITU atala garatzeko lagungarria izango baitzaigu. Hitz batekin edo esaldi labur batekin jasoko dugu ikasleen ekarpen bakoitza.



## 2

# Sentitu

Albiste faltsuek, zurrumurruek eta parekoek hainbat pertsona eta gizatalde estigmatizatzen dituzte. Gizartean oso hedatuak daude eta gorroto-diskurtso ere bihurtu daitezke, kasu batzuetan, jarrera erasokor eta bortitzak sortuz pertsona batzuen aurka. Ondorio lazgarriak izan ditzakete, eta horretaz jabetzea garrantzitsua da, horiek ezagutzen eta sentitzen ditugunean bakarrik egin baitezakegu zerbait diskurtso horiei aurre egiteko.





## 2.1 Gorroto-diskurtsoa

### Helburua:

Gorroto-diskurtsoak zer diren eta nola funtzionatzen duten ulertzea.

### Iraupena:

55 minutu

### 00:00 Sarrera

AZTERTU atalean azpimarratu ditugun gakoak gogoratuko ditugu eta SENTITU atalean, gizartean hedatuak dauden gorroto-diskurtsoek dituzten ondorioak aztertuko ditugula komentatuko diegu ikasleei.

### 00:10 Bideoa ikusi

Zehar errefuxiatuekin elkarrekin egindako bideoa ikusiko dugu:

#### EL INCENDIARIO

Bideo horretan komunikabideetan etorkinen eta errefuxiatuen aurka zabaltzen diren mezuak entzungo ditugu. Hainbat pertsonen testigantzak ezagutzeko aukera izango dugu: etorkinak, elkarrekin lan egiten duten aktibistak...



### 00:30 Solasaldia

Bideoa ikusi ondoren, solasaldia sustatuko dugu eta sentitzen dugun horretara bideratzen saiatuko gara. Hasteko, gorroto-diskurtsoek gizartean sortzen dituzten sentimenduak aztertuko ditugu eta, ondoren, norberarengana gerturatuko gara. Galdera hauek lagungarriak izan daitezke:

- Nolako eragina dute mezu horiek entzuleengan? Nolako jokabideak sustatzen dituzte?
- Nola eragiten diete pertsona etorkin eta errefuxiatuei euren egunerokoan?
- Eta beste gizatalde batzuei buruz esaten denak (ijitoak, LGTBQ+) antzeko sentimenduak sortzen ditu gizartean eta beraiengan?
- Gogoratzen dugu horrelako pasarterik gure inguruan?
- Eta niri zer sentimendu sortzen dizkit? Zer gertatzen da nire barruan? Zer mugitzen dit?
- Sentitu dut noizbait horrelako zerbait norbait nigatik gaizki esaka, gutxiesten edo iseka egiten aritu denean?





## 00:45 Gorroto-diskurtsoak eta beren funtzionamendua<sup>1</sup>

Gorroto-diskurtsoak zer diren eta nola funtzionatzen duten ikasleei hobeto azaltzeko informazio hau erabili dezake irakasleak. Arrazismoaren eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordeak horrela definitzen ditu gorroto-diskurtsoak:

*“Pertsona edo pertsona talde baten aurkako gorrotoa, umiliazioa edo mespretxua sustatu edo bultzatzea, baita pertsona edo pertsona talde hori erasotzea, izena zikintzea, estereotipo negatiboak zabaltzea, estigmatizatzea edo mehatxatzea ere, eta honako hauetan oinarritutako adierazpenak justifikatzea: arraza, kolorea, jatorri nazional edo etnikoa, adina, desgaitasuna, hizkuntza, erlijio edo sinesmenak, sexua, generoa, genero-identitatea, orientazio sexuala eta beste ezaugarri edo baldintza pertsonal batzuk”.*

Gorroto-diskurtsoak gizartean onartutako aurreiritzietan oinarritzen dira, eta munduaren ikuspegi jakin batean finkatutako arauak betetzen ez dituenaren aurka egiten dute. Ondorioz, uko egiten dio aniztasunari, desberdintasunari edo disidentziari.

- Gorrotatutako pertsonen irudi sinplifikatu, puztu eta distortsionatu bat eraikitzen dute.
- Maiz boterea edo status quo-a osatzen ez duten pertsona eta/edo kolektiboen aurka egiten dute.
- Etsaiaren figuraren bidez, gizarte-adostasun negatibo bat bilatzen dute. Gorroto-diskurtsoek gizarte-atxikipena bilatzen dute, arrazoiketa ekidinez. Partekatutako gorrotoak guztien adostasunaren ilusioa sortzen du.

Laburki, honako pausoak jarraitzen dira:

- 1.- Etsaiaren irudia sortu: *besteak ez dira gu bezalakoak.*
- 2.- Estereotipoak eta aurreiritziak sortu: *ezaugarri zehatz batzuk dituzte.*
- 3.- Orokortu: *guztiak berdinak dira.*
- 4.- Beldurra sortu: *arriskuren bat suposatzen dute guretzat.*
- 5.- Gizagabetu: *“gu bezalakoak” ez direnez, errazagoa da “gu bezalakoekin” izango ez genituzkeen jokabide bortitzak izatea eta justifikatzea.*

<sup>1</sup> Iturria: **InteRed** - (moldaketa)

## 2.2 Testigantza tailerra

### Helburua:

Gorroto-diskurtsoek pertsonengan ditzuten ondorioak ezagutzea eta ulertzea.

### Iraupena:

90-120 min

### Tailerraren laburpena

SOS Arrazakeriako bi kidek bideratuko dute tailerra eta lanketa dinamiko baten bidez ikasleen parte-hartzea sustatuko da. Aurreko saioetan landutako elementu desberdinak aterako dira saioan zehar eta beste era batera lantzeko aukera izango dugu, sentimenduekin, sentitzen dugunarekin, sentitzen dutenarekin lotura eginez.



### 3 Konprometitu

Hiru urte hauetan gizarte anitzean bizi garela ikusarazi nahi izan dugu, eta pertsona guztiak, berezkoak ditugun giza eskubideak gauzatzeko aukera berdinak izan behar ditugula. Baina hori ez da horrela, besteak beste, gizartean gorrotoa sortzen duten diskurtsoak bolo-bolo dabiltzalako eta ondorio lazgarriak eragiten dituztelako hainbat pertsonengan.

Orain hartuko dugun konpromisoa, gorroto-diskurtso horiei aurre egitea izango da. Horretarako, iragarkiak sortuko ditugu eta gure herrian eta sare sozialetan zabalduko ditugu.







## 3.1 Iragarkiak sortzeko tailerra

### Helburua:

Iragarki bat sortzen ikastea.

### Iraupena:

120 minutu

### Tailerraren laburpena

Bideogintzan aditua den pertsona bat etorriko da gelara eta iragarki bat sortzeko eman behar ditugun pauso guztiak azalduko dizkigu.

- Kontzeptua: helburua, mezua, slogana, estiloa, publikoa...
- Aurre-produkzioa: gidoia, lokalizazioa, planoak, argiztapena, aktoreak...
- Post-produkzioa eta edizioa: edizio programak, efektuak...
- Hedapena: sare sozial egokia hautatzea, kanpaina estrategia...

Tailerra garatzeko, adituaren azalpenak izango ditugu eta bideo batzuk ere ikusiko ditugu adibide modura. Ikasleek oharrak hartu ditzakete saioan zehar, bideoak sortzeko garaian ezer ez ahazteko.

**5. eranskinean** dagoen laburpena ere eman diezaiekegu saioaren amaieran.



## 3.2 Kanpaina diseinatu eta iragarkia sortu

### Helburua:

Ikasleek herri mailako kanpaina diseinatzea.

### Iraupena:

120-180 minutu (egiten denaren arabera)

### Kanpainaren diseinua

Herri mailako kanpaina bat nola egin pentsatuko dugu. Kanpaina horren helburua herrian sentsibilizazio lana egitea izango da.

*Helburu nagusia*, gorrotoa sortzen duten mezuei, zurrumurruei eta usteei erantzutea izango da. Horretarako, ordezeko mezuak sortuko ditugu, diskriminazioa eta gorrotoa sortzen duten jarrerak eta mezuek gurean lekurik ez dutela adieraziz.

Kanpaina horretako elementu zentrala iragarkiak izango dira eta gela bakoitzak gutxienez iragarki bat sortuko du. Hortik aurrera beste ekintzaren bat antolatu nahi den edo ez, ikastetxe bakoitzean erabakiko da. Aukera ona izan daiteke udalarekin batera kanpaina zabalago bat adosteko.

Udalaz gain, herriko elkarteekin, herriko pertsona esanguratsu edo ospetsuren batekin hitz egin daiteke kanpainan parte hartu dezaten.

Kanpainaren dimentsioaren arabera, ikasleak taldeka antolatuko ditugu eta bakoitzak zeregin desberdina izango du: iragarkia sortu, kanpoko harremanak (udalarekin, herritarrekin...), beste ekintzaren bat prestatzeko taldea, hedapenez arduratuko den taldea...

Hori guztia antolatzeko Aniztasunetik Eraikiz 2 gidaren IV. eranskineko koadroak lagungarri izan daitezke.



## Kanpainarako jarduerak prestatzea: iragarkia, bestelako jarduerak.

**Iragarkia sortzeko**, ikasleek adituarekin egindako tailerrean aipatutako pausoak jarraituko dituzte eta horretarako lagungarri izango dituzte **5. eranskina** eta tailerrean hartutako oharrak.

Bideoaren ezaugarri teknikoak:

- Iragarkiaren iraupena: 30 segundo gehienez.
- Formatua: Mp4 (H.264 kodekean)
- HD kalitatea hobetsiko da.
- Tamaina: Gehienez 2GB.

Kanpainan ez bada beste jarduerarik antolatuko, iragarki bat baino gehiago sortu daitezke gela bakoitzean; horrela ikasle guztien parte-hartzea sustatuko dugu.

**Bestelako jarduerak.** Udalarekin elkarlanean egin daitezkeen beste jarduera batzuk honako hauek izan daitezke:

- Zurrumurruen aurkako tailer bat herritarrentzat, arlo horretan aditua den norbait gonbidatuz **ZAS!**en bidez.
- Mahai ingurua herritarrentzat, elkarrekin desberdinetako ordezkariak gonbidatuz.
- Kanpainarako pentsatu diren sloganekin eta mezuekin kartelak egin eta kalean jarri edo erakusketa bat antolatu herriko areto batean.
- Herriko zinean, gaiarekin lotura duen pelikula batekin zineforuma antolatu. Pelikularen aurretik ikastetxean sortutako iragarkiak proiektatu daitezke.
- ...



## 3.3 Iragarkiak ikusteko jardunaldia

Maiatzaren hasieran, proiektuan parte hartu duten zazpi ikastetxeetako ikasleak elkartuko dira Gipuzkoako herriren batean goiz oso batez. Jardunaldi horretan, besteak beste, ikastetxe bakoitzeko bi bideo ikusiko dira.

Hori dela eta, ikastetxeetan egindako bideoak proiektuaren koordinatzaileari bidali beharko zaizkio aldeztatik Wetransfer bidez.

## 3.4 Kanpaina gauzatu

### Helburua:

Ikasleek prestatutako kanpaina aurrera eramatea.

### Iraupena:

Prestatu denaren arabera

Maiatzaren 21ean aniztasun kulturalaren mundu mailako eguna da. Egun horren bueltan, ikastetxe bakoitzak, ahal duen neurrian, kanpaina garatuko du herrian. Ikastetxe bakoitzean lanketa desberdina izan denez, bakoitzak hori nola garatu pentsatu beharko du.

Iragarkiak egitea bakarrik erabaki bada, kanpaina izango da iragarkiaren difusioa egitea ikasleen sare sozialen bidez, ikastetxearen web orrian eta sare sozialetan... Udalaren laguntza ere eskatu daiteke hedapena egiteko. Ikastetxeak erabakiko du kanpainan iragarki bat edo gehiago erabiliko diren.

Iragarkiez gain beste jardueraren bat prestatu bada, hori ere data berdinetan gauzatu da. Jarduera horiek herritarrei begira egitea komeni da, sentsibilizazio lan bat egitea baitute helburu.

# 4 Ebaluazioa

## 4.1 Ebaluazioa eta ospakizuna

Egindako lan guztiari amaiera emateko bi zeregin falta zaizkigu: batetik, ebaluazioa, eta bestetik, ospakizuna.

Ebaluazioa egiteko garaian, ikasle bakoitzaren ebaluazioa jasoko da proiektuan emango zaigun galdetegia betez, eta, bestetik, irakasle taldearen ebaluazioa jasoko da.

Ospakizuna ere garrantzitsua da. Egindako lan guztiak errekonozimendu bat merezi du eta hori ospakizun moduan egingo dugu. Taldeak berak erabakiko du nola egin. Parte hartu duten guztiak gonbidatu ditzakegu ospakizunera, ikasle eta irakasleak, elkarteko kideak, udaleko ordezkariak... Ez du gauza handia izan behar.



# 1. Eranskina

**Zenbateraino zaude ados ondorengo esaldiekin?** Puntuatu 1etik 4ra.

(1) Erabat desados

(2) Nahiko desados

(3) Nahiko ados

(4) Erabat ados

- Norbaiti marikoi edo moro deitzea ez da iraingarria, hitz egiteko modu bat besterik ez da.
- LGTBQ+ pertsona geroz eta gehiago ateratzen dira armairutik. Moda bat da.
- Desgaitasuna duten eta lanerako balio ez duten pertsonak dirulaguntzak jasotzen dituzte eta horrekin ondo bizi dira.
- Ijitoei buruzko txisteak edo desgaitasuna duten pertsonenak, homofoboak edo matxistak ezin dira debekatu, bestela adierazpen askatasunaren kontra joatea litzateke.
- Etorkinak dirulaguntzez bizi dira.
- Trans Legeak aukera ematen du emakumea dela dioen gizon batek genero indarkeriaren legea saihesteko.
- Desgaitasuna duten pertsonak koste ekonomiko handia suposatzen dute gizartearentzat.
- Euskararen erabilera asko jaitsi da geroz eta etorkin gehiago etortzen direlako.
- Ijitoek ez dute integratu nahi.
- Buruko gaixotasunen bat duten pertsonak arriskutsuak dira.
- Ez dut ezer etorkinen aurka, baina bertakoak aurrena.
- Benetako mutil bat ematen du, ez zaio nabaritzen Transa denik.
- Ijitoek ez dute ikasi nahi eta hezkuntzaren maila jaisten dute.
- Gaur egun dena egokitua dago eta desgaitasuna duten pertsonak ez dute arazo handirik nahi duten tokira joateko.
- Pertsona batzuk nazka ematen dute.

# 2.A Eranskina

## Zer dira albiste faltsuak?

Albiste moduan argitaratutako informazio faltsua da, pertsonak engainatzeko eta errealitatea manipulatzeko baliatzen dena.

## Nola biralizatzen dira albiste faltsuak?

Albiste faltsuak egiaztat hartu dituzten pertsonak kanal hauen bidez biralizatzen dituzte: sare sozialak (TikTok, Facebook, Instagram, Whatsapp...); komunikabide masiboak (egunkariak, telebista...), blogak. Albiste faltsuak egia diren albisteak baino sei aldiz azkarrago zabaltzen dira eta jende gehiagorengana iristen dira.

## Nortzuk eta zertarako idazten dituzte albiste faltsuak?

- Pertsonen edo herrialdeen izen onari kalte egiteko interesa duten pertsonak;
- Sentsazionalismoa edo beldurra eragin nahi duten pertsonak;
- Iritzi publikoa manipulatu nahi duten pertsonak;
- Interneten edo sare sozialetan zurrumurru bat entzun edo irakurri duten pertsonak;
- Dirua irabazteko bizimodu gisa edukiak eta desinformazioa sortzen dituzten pertsonak;
- Webguneetako klikak erabiliz dirua irabazi nahi duten pertsonak;
- Kontrastatu gabeko albiste faltsuak iturri gisa hartzen dituzten kazetariak.

## Nola jakin dezaket albisteak faltsuak edo benetakoak diren?

**1. Egiaztatu edukia.** Gertaerak eta datuak zehaztasunez ematen dira? Artikulua edo berria inpartziala da? Komunikabide fidagarriek iritziartikuluen sailean argitaratzen dituzte beren iritziak eta ez albisteen atalean.

**2. Komunikabidea egiaztatu.** Ezagutzen duzu? Begiratu “guri buruz” atalari. Nor dago horren atzean? Nor finantzatzen du? Interes berezirik izan dezake berri hori emateko (ekonomikoa, politikoa...)?

**3. Egilea egiaztatu.** Pertsona hori existitzen al da? Kazetari errespetatuek beti dute ibilbide bat, artikulua gehiago idatzi izan dituzte. Egileak bere izena asmatu badu (edo ez badu aipatzen), litekeena da gainerakoa ere faltsua izatea.



## 2.A Eranskina

**4. Iturriak egiaztatu:** Egileak iturri fidagarriak erabiltzen ditu? Aipatzen diren adituak benetan espezialistak dira? Ikerketaren batean oinarritua dagoela dio baina ikerketaren estekarik ez dago? Artikulua iturri anonimoetan oinarritzen bada edo informazioa kontrastatzeko estekarik ez badago, faltsua izan daiteke.

**5. Egiaztatu irudiak:** Irudiek eragin handia dute eta erraz manipulatu dira. Irudien bidezko bilaketa egin dezakezu ea irudi hori beste testuinguru batean erabili den jakiteko.

**6. Partekatu aurretik, pentsatu:** Berria, antzinako gertaeren distortsio bat edo satira bat izan liteke. Titularra emozio handiak sortzeko diseinatuta egon liteke. Benetako gertakari bat bada, beste komunikabide fidagarri batzuk ere horren berri emango dute. Egiazta ezazu.

**7. Zalantzan jarri zure aurreiritziak:** Batzuetan, istorio bat onegia edo entretenigarriegia da egia izateko. Ondo pentsatu, alderatu iturri fidagarriekin eta eduki burua hotz.

**8. Lagundu mugak jartzen:** Desinformazioa zabaltzeko erabiltzen diren azken trikimailu eta iruzurrekin argi ibili. Salatu albiste faltsuak. Esaiezu zure lagunei.

Iturria: [Europar Parlamentua](#) (moldaketa)

## 2.B Eranskina

### Egia edo gezurra?



**Indignación en Bilbao por la muerte de un hombre de 40 años tras ser atacado y brutalmente golpeado por dos magrebíes.**

Berria: [HEMEN](#)



**Un inmigrante que vende pañuelos se encuentra una cartera con 16.150 euros... y la entrega a la Policía.**

Berria [HEMEN](#)



**Mandan a un 'euskalburro' a la Luna.**

Berria [HEMEN](#)



**Obamak (EEBBko lehendakari ohia) atea ostikada batez ireki du.**

Bideoa [HEMEN](#)



**Egia bezala zabaldu ziren argazkiak.**

Bideoa [HEMEN](#)

## 3. Eranskina



## 4. Eranskina

### 1. ESZENA

#### 1 IKASLEA.

Honako mezua jaso duzu eta taldekideei kontatuko diezu: *“Aurten inoiz baino etorkin gehiago etorri dira Euskal Herrira, inbasio bat da hau! Dirulaguntza guztiak jasotzen dituzte, ez dute lanik egin nahi, eta kaleetan segurtasun falta geroz eta handiagoa da”.*

Esaten duzunaz oso ziur zaude eta zu ere horrekin ados zaudela adieraziko duzu.

#### 2 IKASLEA.

1 ikasleari entzun diozunarekin ez zaude ados baina ez duzu ezer esango. Deseroso zaude baina isilik geratuko zara. Gehienez, aurpegian igarriko zaizu ados ez zaudela. Desadostasuna agertzeko keinu txikiren bat egin dezakezu.

#### 3 ETA 4 IKASLEAK.

1 ikasleak jaso duen mezua kontatzen dizuenean, berak esandakoari sinesgarritasuna emango diozu eta zuk ere antzeko diskurtsoarekin jarraituko duzu, zure iritzia emanaz.

### 2. ESZENA

#### 1 IKASLEA.

Honako mezua jaso duzu eta taldekideei kontatuko diezu: *“Aurten inoiz baino etorkin gehiago etorri dira Euskal Herrira, inbasio bat da hau! Dirulaguntza guztiak jasotzen dituzte, ez dute lanik egin nahi, eta kaleetan segurtasun falta geroz eta handiagoa da”.*

Esaten duzunaz oso ziur zaude eta zu ere horrekin ados zaudela adieraziko duzu.



## 4. Eranskina

### 2 IKASLEA

1 ikasleari entzundakoarekin ez zaude ados eta horren aurkako argudioak botako dituzu. Datuak emango dituzu eta berarekin eztabaida sortuko duzu.

### 3 ETA 4 IKASLEAK

1 ikaslearen alde jarriko zara une oro. Bere diskurtsoa elikatuko duzu eta 2 ikaslearen argudioei kontra egingo diezu, baina inongo daturik eman gabe.

## 3. ESZENA

### 1 IKASLEA

Honako mezua jaso duzu eta taldekideei kontatuko diezu: *“Aurten inoiz baino etorkin gehiago etorri dira Euskal Herrira, inbasio bat da hau! Dirulaguntza guztiak jasotzen dituzte, ez dute lanik egin nahi, eta kaleetan segurtasun falta geroz eta handiagoa da”.*

Esaten duzunaz oso ziur zaude eta zu ere horrekin ados zaudela adieraziko duzu.

### 2 IKASLEA

1 ikasleari entzundakoarekin ez zaude ados eta hori gezurtatzen duen eta zuk ezagutzen duzun kasuren bat kontatuko duzu, 1 ikasleak esaten duena beti horrela ez dela adierazteko. Hori gezurtatzen duen zure lagun baten historia edo zure bizilagunarena kontatuko dituzu (lanean daude, familia jatorra da, ez dute bizikidetza arazorik sortzen...). Zure iritzia emango duzu, baina ez zara eztabaidatan sartuko.

### 3 ETA 4 IKASLEAK

Hasieran, 1 eta 2 ikasleen hitzak entzungo dituzu eta ondoren zure iritzia emango duzu.



## 5. Eranskina

### Iragarkiak egiteko eman beharreko pausoak

30 segundoko iragarki on bat egiteko, gauza asko zehaztu behar dira, grabatzen hasi aurretik, grabaketa egiten den momentuan, eta ondoren. Hauek dira kontuan izan beharreko puntu garrantzitsuenak.

### 1. Helburua – Ideia-Kontzeptua

**Mezua:** Transmititu nahi den mezua argia izan behar da. Ideia hori jasoko duen slogan edo mezu labur eta zuzena bideoan sartzea lagungarri izango da.

**Estiloa:** Transmititu nahi dugun mezu horren tonua zein izango den erabaki beharko dugu: umorea, drama, formala, informala, serioa, metaforan oinarritutakoa, fantasiakoa...

**Hartzailea:** Publikoa zehaztu, norengan eragin nahi dugun: umeengan, gazteengan, helduengan, guztiengan, sektore konkretu batengan... Horren arabera, erabiliko ditugun hitzak eta estiloa egokiak izan beharko dira mezua ondo uler dezaten.

**Nondik hasi:** Brainstorming saio bat egingo dugu. Orri zuri batean ideia guztiak bilduko ditugu eta, ondoren, egokiena aukeratuko dugu (helburua betetzen duelako, mezuak indarra duelako, originala delako). Kreatibitatea eta sormena lantzeko ariketa izango da.

### 2. Aurre-produkzioa

Aurreko guztia erabaki dugunean, ondorengo pausuak eman behar ditugu:

**Gidoia:** Grabatuko duguna idatzi egingo dugu, detaile guztiak kontuan hartuz. Storytelling.

**Lokalizazioa:** Grabazioa egiteko leku egokia edo egokiak aukeratu beharko ditugu. Barruan izan daitezke edo kanpoan, kontatu nahi dugunaren arabera.

**Aktoreak:** Aktoreak behar baditugu, alde aurretik jakin behar dute bakoitzak zer esan behar duen, zer egin behar duen, non kokatuko den.

**Planoak:** Plano mota desberdinak daude, eta hor kontuan izan beharreko bi elementuak planoaren tamaina eta angeluazioa dira. Bakoitzak transmititzen duena desberdina da eta planoak egoki erabili behar dira.



## 5. Eranskinak

**Argiztapena:** Grabazioa kalean bada, grabatzeko unerik egokienak egunsentia, egunabarra edo lainotuta dauden egunak dira. Argia komenigarria da, baina gehiegizko argia ez. Barruan grabatzen badugu, fokuren bat izatea komenigarria izan daiteke, guk nahi duguna argitu ahal izateko.

**Kamera:** Mugikorra erabiltzen badugu, kontuan izan ea egonkortzailea duen edo ez. Ez badu, tripodea erabiltzea ondo etorriko zaigu.

**Ahotsa/soinua:** Hitzak grabatzeko, batzuetan mugikorraren mikrofonoarekin nahikoa izan daiteke, baina mikrofono bat erabili badezakegu, kalitatea hobetuko dugu. Kalean grabatu behar badugu, leku isil bat aurkitu beharko dugu.

**Musika:** Musika egokia izatea oso garrantzitsua da, kontatu nahi denarekin eta transmititu nahi den emozioarekin bat joan beharko du. Abesti askok jabetza eskubidea izaten dute, beraz, libre dena erabili beharko da.

### 3. Edizioa eta post-produkzioa

**Programa:** Edizioa egiteko programa asko daude. Badira doakoak ere. Norberarentzat egokiena dena aukeratu beharko dugu, erraza eta baliabide desberdinak eskaintzen dituena. Doako programa batzuk gero ur markak jartzen dituzte eta horiek ez dira egokienak.

**Bestelako baliabideak:** Editatzerakoan, irudiez gain testu desberdinak edo marrazkiak ere jarri ditzakegu, mezua indartu edo argitzen laguntzen badute. Efektu desberdinak ere sartu ditzakegu.

### 4. Hedapena

**Sare soziala:** Bideoa ezagutzera emateko sare sozial desberdinak erabiliko ditugunez, komeni da hori hasieratik kontuan izatea, bakoitzak bere formatua eta estiloa duelako.

**Kanpaina:** Estrategia pentsatu behar da ahalik eta jende gehienarengana iritsi dadin.







Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA  
ORAIN  
Es futuro



**Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoko Zuzendaritza**

[www.gipuzkoa.eus/eu/web/gizaeskubideak](http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/gizaeskubideak)